

Xabier Berasaluze Leturia: "Ezkutuan aritzen gara. Prentsan ez da azaltzen non jotzen dugun. Erromerietarako edo festetarako deitzen badigute, ezetz esaten dugu. Afaloste baterako edo deitzen badigute, kartelik behar ez den ekitaldietarako, horretan animatzen gara"... "Tapiari eta niri ikaragarri gustatzen zaigu jotzea. Hori ez da kontua. Zure karrera artistikoa progresio batean eraman baduzu, orain berriz ezin gara hasi 1985ean egiten genuen kontu batekin. Zerbait egitekotan, indartsua izan behar luke".

(Gipuzkoako Hitza, 2012-03-23)

Kupela taldekoak "Gailurrak ikutuz" diskoaz

Anjel Larrañaga: "Garai hartan jendearen belarrira asko iritsi ziren bertsoak aukeratu ditugu. Aspalditik egin nahi nuen kapritxoia da diskoa, ni neu taulan nintzela entzundako bertso ahaztezinak bildu ditugulako. Gaiak benetakoak ziren orduan, bihurriak, dibertigarriak. Gai bakarrarekin egiten ziren zortziko txikiak, bat-batean; orain, ezinezkoa dirudi halakorik egitea"... "Kupela betikoa da, baina aukeratutako sagarrek material ezin hobea daukate".

Xabier Alberdi Zabale: "Bertsoen jatorrizko doinuak erabili ditugu, eta doinu berriekin uztartu. Soinua nahiko aldatu da, ez da betikoa; mandolina, biolina eta gitarra erabili ditugu. Horrekin batera, perkusioa gutxitu dugu, bertsoei grazia kentzen zielako. Emaizta ona ateratu zaigu. Ondo nahastu dira doinuak".

(Berria, 2012-03-30)

Joxe Mendizabal: "Diskoan datorren pieza baten izena ere bada "Soinujolea naiz". Baina garrantzitsuena, nire proiektu berriaren aurkezpen gisa balio duela: "erromeria.com" proiektuaren aurkezpen moduan. Erromeria eta berbenetako musika egiteko modu berri bati erreferentzia egiten dion kontzeptua da. Formatoa oso simplea da. Pertsona bakar batekin egiten du dena: montatu, desmontatu, musika, instrumentuak... batek pentsa lezake, eszenatokian bakarrik egonda, DJ bat naizela, baina ez da hala. Teknologia berriek nere lan eremuan pisu handia duten arren, "erromeria.com" gertuago dago plazako dantzaldi tradizional edo betiko erromeriatatik."

(Diario Vasco, 2012-04-12)

IRAKASKUNTZARI LOTUTAKO IKASTAROA, JOSEBA TAPIAREKIN

Joseba Tapiak soinu joleei eta gainerako instrumentu-irakasleei zuzendutako ikastaroa emango du datorren ikasturtean Lasarteko Tirikitrauki dendan. Urritik ekainera emango ditu eskolak, astean behin, goizetan. Zortzi ikaslerentzat izango da tokia. Informazio gehiago nahi izatera: 943 37 28 17 // 606 43 50 04 telefonoetara deituta edo tirikitrauki@tirikitrauki.com helbidera idatzita.

BOSTON JAI, OSKAR ESTANGAREN TALDE BERRIA

Plazetan giro bikaina jartzera dator Boston Jai taldea. Iaz Trikizio taldean aritutako bost musikariak sortu duten proiektu berria da; erromeria tradizionala transformatu eta festarako musika eskainiko duena. Euskal taldeen kantu ezagunak, atzerrikoak, eta beraiek sortutakoak joko dituzte, beti ere soinu txikiaren protagonismoarekin. Honoko musikariok topatuko dituzue Boston Jai izenpean Euskal Herriko plazetan: Oskar Estanga, *Etxe*, Iban Larreburu, Iban Gurrutxaga eta Tana Santana.

OMENALDIA JASO DU BERGARAN URKIKO MAGOAK

Joan den martxoaren 23an, 81 urte bete eta bigarrenean, Migel Sagastumek, *Urkiko Magoak* omenaldi ederra jaso zuen Bergarako Santa Marina parrokiaren, Deba goieneko musika eskolen eta akordeoi taldeen partetik. Dantzari eta musikaririk ez zen falta eta, jakina, soinu jole mordoa aritu zen. Ia ehun hauspo dantzan. Besteak beste, Joxean Goikoetxea edota June Martin; *Urkiko Magoaren* biloba, eta familian aitona-ren tradizioari eutsi dion bakarra. Duela bi urte ebakuntza egin zioten Migeli eta medikuek galarazi egin diote soinua jotzea. Orain, soinua jo beharrean, grabazioak entzuten ditu. Pozik entzun zituen omenaldiko doinuak eta Bergarako Musika Eskolako lehendakariaren eskutik oparia ere jaso zuen: berari eskainitako bertso sorta eta argazkia jasotzen dituen oroigarria.



www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

Bikote beteranoen doinuekin dator Faborez bildumako disko berria

Aurki izango da kalean Faborez bildumako azken lana: "Faborez 05 + bat" izenekoa. Seigarren alea izanda ere, izen berezia jarri zaio, izatez ere, berezia delako. Parte hartzaileetan aldaketa izan da lan berri honetarako. Aurreko bost aleetan, trikitilari bikote gazteei eman zaie aukera diskogintzan aritzeko. Azken hontan ordea, beterano izanda ere, diskorik grabatu gabe zeuden bikoteen txanda egokitu da. Aurreko aleen gisan, hori bai, gazte zein beterano, dokumentazio lana izan du ardatz disko honek ere. Trikitilariok, beren garaian, sarri jotako piezak grabatu dituzte "Faborez 05 + bat" lanean.

Bost urte joan dira, dantzarako erreperorioa biltzeko helburuz, Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Faborez disko bilduma hasi zuenetik. Urteotan jotzaile gazteez osatutako hogeitaz bikoitek diskogintzan estreinatzeak aukera izan dute, eta aurten, sekula diskorik grabatu gabeko trikitilari beteranoek ere aukera merezi zutela pentsatuta, honoko lau bikoteek osatu dute diskoa.

- **Astiasaran anaiak:** Asko miresten duten *Gelatxo* zenari ikasitako piezak jo dituzte batik bat, eta baita Mexikoko doinu bat ere. Dantza sueltotan zein lotuan egitekoak, bietarik ekarri dituzte bildumara.
- **Sahatseta eta Berastegi:** *Sakabi* edota *Lajari* ikasitako ez gain, *Sahatsetak* berak sortutako bi pieza ere bildu dituzte lan honetara. Tartean, *Berastegiren* etxera sagardoa egitera joandakoan, bertan sortutako arin-ariña.
- **Uitte eta Lutxurdio:** *Uittek* berak sortutako bi pieza grabatu dituzte; baserri inguruko parajeen izenarekin bataiatutako fandango eta arin-arin bana. Beste hiru piezak, Elosun jo ohi zirenak, beste soinu joleei ikasiak, edota grabazio zaharretatik hartutakoak dira.



- **Mentxu eta Gema:** Etxeko kantatzeko ohiturari tiraka, Mentxurenean ikasitako bi pieza bildu dituzte. Amak sarri kantatu eta beraiek doinua soinura moldatutako bi pieza dira. Gainerako hirurak Iñaki Malbadik sortuak dira.

Apirilean zehar grabatu da diskoa Hernaniko Oh Brother disketxean, Iñigo Egia teknikariarekin. Ekaina bukaeran aurkeztuko da diskoa prentsa aurrean eta, gauzak ongi, uztailerako dendetan izango da.



Xabi Solano eta Zigor Lamprek egin dute "Gazta zati bat" dokumentalaren musika

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian estrainekez eman zenetik, arrakastatsu dabil "Gazta zati bat" dokumentala. Ion Maiak zuzendutako lan honek Goierriin sortutako Nazioen Mundua mugimenduaren nondik norakoak azaltzen ditu, herrien erabakitze eskubidea ardatz hartuta. Xabi Solano eta DJ Zigorrek egin dute dokumentalaren musika, eta Altzaporrak Xabi Solanorekin hitz egin du, soinu banda sortzearen esperientzia nolakoa izan den jakiteko.

"Iazko irailan deitu zigun Ion Maiak, hain justu, Esne Beltzaren diskoa grabatzen ari ginela. Lanez leporaino genbiltzan, baina ideia asko gustatu zitzaigun. Eta gainera, inoiz egin gabeko lana izanik, doku-film baterako musika sortzea erronka polita iruditu zitzaigun". Ez zuten nolanhiko enkargua jaso, baina bitan pentsatu gabe eman zuten baiezkoa. "Berehala ikusi genuen Zigorrek eta biok lan polita egin genezakeela, eta asko ikasiko genuela arlo hortan".

Ez zebiltzan oker. Musikalki eta lan egiteko eragatik oso aberasgarria dela aitortu digu Solanok. Norbere kantuak eta diskoak sortzearen aldean, berria bezain aberasgarria. Dokumentalak kontatzen duen istorioan erabat murgildu eta istorioaren mamia musikaz helaraztea izan da beraien lana. "Erabat ezberdina izan da. Kontatzen ari zaren istorioan sartu eta irudien norakoa transmititzen saiatu behar duzu... sentimentu ezberdinak bilatzen saiatu. Aurreneko dokumentalaren zirriborroa ikusi genuenean, segituan ikusi genuen argi. Oso erraz sartu ginen proiektuan, izan ere, gaurkotasunez betea da, eta euskaldunok segituan identifikatzen gara bertan".

Lanerako nahi baino denbora gutxiago izan duten arren, emaitza ikusitakoan, oso pozik geratu dira Xabi eta Zigor. Hunkituta. "Estreinaldira joan ginenean, oso hunkituta ateratzen ginen: gure musika zinema batean entzutea eta filmaren ildoarekin oso ongi nahastua... emozionantea!!! Bide batez, Beñat Gantxegik egin duen lana aipatu nahi nuke. Oso oso lan ona egin du musika film barruan txertatzen".

Lana egina dago, eta dokumentala martxan. Herriz-herriko zirkuitoan ematen ari dira orain filma eta bertan, Nazioen Munduak jartzen dituen postuetan, aurki izango da eskura soinu banda. Durangoko Azokarako "eskaintza zabalagoa" prestatzen ari direla kontatu digu Solanok eta akaso, Esne Beltzaren emanaldietan ere, izango da tarterik "Gazta zati bat" dokumentalaren musika entzuteko.

Trikiliklik saioa emango du udan Euskadi Irratiak

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta Euskadi Irratiak elkarlanean egindako irratsaioa bigarrenez emitituko da uda honetan. Hamar ataletan banatuta, trikitixaren historia kontatzen duen irratsaioa da. Oihane Egurtzak gidatutako erreportai sorta hau 2010eko udan eman zen aurreneko eta aurki berriz ere entzuteko aukera izango da Euskadi Irratiaren sintonian. Soinua gurera nondik etorri zen, erreperitorioa nondik bildu zuen, garai bateko erromerien giroa, txapelketak, disko-gintza eta beste hamaika konturen gaineko argibideak nahi izatera, astearte iluntzetan duzue hitzordua.

ORDUA: astearteetan 20:00tan

AURRENEKO SAIOA: uztailaren 3an

AZKEN SAIOA: irailaren 4an

Loiun ospatu da aurtengo Bizkaiko Trikitixa Eguna



Bizkaiko Trikitixa Egunaren aurtengo edizioa Loiun ospatu zen maiatzaren 19an. Eguneko egitarauak agintzen zuen moduan, eguerdian, Bizkaiko hainbat trikitixa eskola, trikitilari eta trikitizale batu ziren herriko enparantzan. Udaletxeko eskilaretan familia argazkia atera eta Loiuko auzoetatik zehar hasi ziren kalejirak. Aldi berean umeentzako tailerrak eta puzgarriak ere izan ziren frontoian, *Practice Your Music* proiektua ezagutzeko *standarekin* batera.

Bazkalorduan denak elkartu ziren berriz ere frontoian, bazkaldu, bazkalostean jo eta erromeriaz gozatzeko. "Aire Aire" talde bizkaitarra izan zen arratsalde partean giroa alaitu zuena. Eguraldia lagun eskasa izan bazen ere, egunaren amaierararte egon ziren jotzen Loiun trikitilariak.

Bizkaiko Trikitixa Eguna Bizkaiko Trikitixa Elkarteak antolatutako Loiuko Udalarekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

BITE (Bizkaiko Trikitixa Elkarteak).



Isidro Larrañaga: Hauspoak gidatutako bizitza

Isidro Larrañaga soinu jole tolosarrak, 82 urte betetzekotan dela, disko bikoitza kaleratuko du aurki. Batetik, 70eko hamarkadan etxean egindako grabazioa eta, bestetik, iaz grabatutako pieza berriak jasotzen dituen. Isidrok berak eman dizkigu argibideak.

"1979an etxeko kasete grabagailu batekin egindako grabazioa berreskuratu dugu. Guillermo Lazkano zenak, nire hainbat abesti grabatzea proposatu zidan. Oso lagunak ginen, eta kantuak estudioan grabatu bitarte, etxean konponketak egin eta kasete batean grabatu nuen guztia. Kantu haiek ez ziren sekula iritsi estudioara... eta duela gutxi etxean aurkitu nuen kasetea". Kaki Arkarazok Garate estudioan egokitu eta masterizatuta, hil honetan bertan kaleratuko da, disko berriarekin batera.

Laugarren diskoa grabatzeko gogo handia zuela aitortu digu Isidro Larrañagak. "Abestiak prestatzen hasi nintzen eta ongi sentitzen nintzen, hatzak ondo... eta *atera beharra daukat ba!* pentsatu nuen". Joxe Mendizabal, Xabier Zubeldia, Iñigo Salaberria eta bere seme Jon Ander izan ditu lagun diskoa prestatzeko garaian. "Jon Anderrekin primeran aritu naiz, etxean lasai... berak estudioa etxean sartuta. Iazko inauterietan aldiz, Joxe eta Xabierrekin aurkitu nintzen, biak nire ikasle izandakoak. Ideia gustora hartu zuten eta semearekin batera, grabazio eta konponketen ardura hartu dute". Diskoa hil honetan bertan aurkeztuko dute Tolosan eta Donostian.

DOKUMENTAL BIOGRAFIKOA ERE BIDEAN DA

Era berean, Molatu Produkzioak etxea Isidroren biografia jasoko duen dokumentala prestatzen ari da. Zazpi urte zitue-



la hasi zen Isidro soinua jotzen. "Aitak jotzen zuen eta armarioan edukitzen zuen gordeta soinu txiki bat. Behin ikusi eta, *hartuko det, ez ote det...* egun batean hartu nuen eta, aitari ikusitakoa egin nahian, bi eskuekin probatzen hasi nintzen. Hark ezer jakin gabe hasi nintzen eta 9-10 urterekin, dextente moldatzen nintzen. 12 urterate soinu txikiarekin aritzen nintzen. Orduan gurasoek soinu berria erosi zidaten eta akordeoiari helduta jarttu nuen". Ondoren, Ignacio Mokoroarekin eta Ramon Otamendirekin ikasi zuen, bai musika, baita akordeoia ere. 14 urterekin ezkontzatan jotzen hasi zen, erromeriatan, obra klasikoak ikasiz...

Interprete eta sortzaile izateaz gain, irakaskuntzari lotuta hamaika urte egin ditu Isidrok eta makina bat soinu jole eta musikari profesional atera da bere eskolatik. "Aurrena etxean hasi nintzen eskolak ematen eta 1972an sortu nuen eskola". Dokumentala osatzeko, grabazio zaharren fatan, garai bateko pasarteren bat fikziora eramateko asmotan dira eta Isidroren inguruko testigantzak ere jaso nahi dituzte.

Soinu diatoniko ikastaroak, udan, Katalunian

Uztaila eta abuztu bukaeran Katalunian izango diren bi ikastaroren berri jaso dugu Altzaporrin. Hona hemen, horien gaineko datuak.

VI asteburu diatonikoa, uztailaren 19tik 22ra, Tarragonako Mont-roig del Campen: Carles Belda, Guillem Anguera eta Joseba Tapiak emango dituzte ikastaroak. Kontzertu eta bestekako jardueren artean, Tapiak eta Leturiaren emanaldia izango da. Informazio gehiago nahi izatera: <http://www.ladiatonica.cat/cds-diatonic-mont-roig>

V soinu diatoniko eta biolin ikastaroa, abuztuaren 27tik 31ra, Cases Altes de Posadan: Soinu joleen mailaren arabera, hiru taldetan eskainiko dira ikastaroak. Irakasle lanetan, Marc del Pino, Ignacio Alfayé eta Aleix Armengol arituko dira. Laguntza erritmiko eta melodikoa, akordeak, eskalak, eta inprobisazioa landuko dira besteak beste. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izatera: info@cursrural.com helbidera idatzita edo 610 915054 telefonora deituta.

Eta gogoan izan, urteroko gisan, uztailako azken asteburuarekin soinu joleen hitzordu handia ospatuko dela Arsèguellen: "Trobada emb els Acordionistes dels Pirineus". Uztailaren 28 eta 29an Europako akordeoi diatoniko joleen elkargune bihurtuko da Lleidako mendialdean dagoen postal itxurako herrirka hau.



Xapre eta Furriela enbor gainean jotzen

Zaldibiko Saturdi auzoan ateratakoa da argazki bitxi hau, joan den apirilaren 9an, Pazko Astelehenarekin. Egundako festari amaiera ikusgarria eman zioten herri kirolekin. Hiru metro altu zituen enborra zutitu zuten, eta Floren Nazabal eta Iñaki Azurmendi oinean kolpeka ari zirela, Jose Luis Etxeberria *Xapre* eta Joxe Antonio Irastorza *Furriela* enborrean gainera igota aritu ziren jotzen. Ikuskizun bitxia, dudarik gabe! Baina ez zuten aurreneko aldia Zaldibian. Duela makina bat urte, herriko plazan gisa bereko ikuskizuna izan zen. Orduko hartan Ataungo Aierbek ebaki zuten enborra, baina trikitilariak berberak ziren: Xapre eta Furriela.

© ONEKA GARMENDIA

© ASIER GARAGARZA